koalifikazioen eta lanbide heziketaren euskal institutua
Instituto vasco de cualificaciones y formación profesional

LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOEN PROGRAMAZIOA

PROGRAMACIÓN DE LOS CICLOS FORMATIVOS DE FORMACIÓN PROFESIONAL

GIZARTE ETA KULTURA ZERBITZUAK

HAUR-HEZKUNTZA GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

# 8. modulua: Familiekin Lankidetzan Aritzea eta Arrisku Sozialen Dauden Adingabeei Arreta Eskaintzea

EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOEN PROGRAMAZIOA

PROGRAMACIÓN DE LOS CICLOS FORMATIVOS DE FORMACIÓN PROFESIONAL

GIZARTE ETA KULTURA ZERBITZUAK

## HAUR-HEZKUNTZA GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

# 8. modulua: Familiekin Lankidetzan Aritzea eta Arrisku Sozialen Dauden Adingabeei Arreta Eskaintzea

EUSKO JAURLARITZA | GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Viceconsejería de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Argitaraldia: 1.a, 2009ko ekaina

Egilea: Mari Mar Fernández Ruiz

Argitaratzailea eta koordinazioa: Víctor Marijuán Marijuán
KOALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CUALIFICACIONES Y FORMACIÓN PROFESIONAL
www.kei-ivac.com

Diseinua eta diagramazioa: TRESDETRES

L.G.: BI-1758-09



Iraupena: 100 ordu
UDen kopurua: 7

Esku artean duzun argitalpen hau lanean ari diren lankideek landu dute.

Edozein gairen programazioa oso lan pertsonala da, irakasle bakoitzaren esperientzian oinarritua eta, horrenbestez, subjektiboa. Premisa hori kontuan izanik, programazioa aztertzera eta egoki baderitzozu kontsultarako material gisa erabiltzera gonbidatzen zaitugu. Zure irakasle-lana bideratu dezakeen gida gisa ere baliagarria izan dakizuke.

Izan ditzakeen mugak aintzat hartu badira ere, heziketa-ziklo berrien OCDak abiapuntu izanik sortu eta diseinatu da, eta EAEn curriculum-diseinuaren eta irakaskuntza-programazioaren arloan indarrean dagoen legeria hartu da kontuan (otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua).

Erabilgarria izan dakizun espero dugu, eta, aldi berean, egileek lan honetan egindako ahalegina eskertzen dugu.

# AURKIBIDEA


UD-EN SEKUENTZIAZIOA ETA DENBORALIZAZIOA 04. or

0. unitate didaktikoa:

0. Moduluaren aurkezpena 05. or

1. unitate didaktikoa:

1. Adingabeekin gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko programak eta jarduerak diseinatzea 08. or.

2. unitate didaktikoa:

2. Familiekin esku hartzeko programak eta jarduerak diseinatzea 11. or

3. unitate didaktikoa:

3. Adingabeekin gizarte- eta hezkuntza-arloko programak eta jarduerak abiaraztea 15. or

4. unitate didaktikoa:

4. Familiekin esku hartzeko programak, jarduerak eta estrategiak abiaraztea 18. or

5. unitate didaktikoa:

5. Adingabeekin gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko prozesua eta horren emaitzak ebaluatzea 21. or

6. unitate didaktikoa:

6. Familiekin esku hartzeko prozesua eta horren emaitzak ebaluatzea 24. or

7. unitate didaktikoa:

7. Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzeari buruzko laburpen-proiektua 27. or

## Unitate didaktikoen sekuentziazioa eta denboralizazioa

| EDUKI MULTZOAK | | | | | | UNITATE DIDAKTIKO SEKUENTZIATUAK | IRAUPENA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| M1 | M2 | M3 | M4 | M5 | M6 | | |
| | | | | | | UD0: Moduluaren aurkezpena | 1 h |
| x | | | | | | UD1: Adingabeekin gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko programak eta jarduerak diseinatzea | 15 h |
| | x | | | | | UD2: Familiekin esku hartzeko programak eta jarduerak diseinatzea | 15 h |
| | | x | | | | UD3: Adingabeekin gizarte- eta hezkuntza-arloko programak eta jarduerak abiaraztea | 12 h |
| | | | x | | | UD4: Familiekin esku hartzeko programak, jarduerak eta estrategiak abiaraztea | 12 h |
| | | | | x | | UD5: Adingabeekin gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko prozesua eta horren emaitzak ebaluatzea | 10 h |
| | | | | | x | UD6: Familiekin esku hartzeko prozesua eta horren emaitzak ebaluatzea | 10 h |
| x | x | x | x | x | x | UD7: Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzeari buruzko laburpen-proiektua | 25 h |
| | | | | | | GUZTIRA | 100 h |

*1. multzoa: Adingabeekin gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko programak eta jarduerak planifikatzea*

*2. multzoa: Familiekin esku hartzeko programak eta jarduerak planifikatzea*

*3. multzoa: Adingabeekin gizarte- eta hezkuntza-arloko programak eta jarduerak abiaraztea*

*4. multzoa: Familiekin esku hartzeko programak, jarduerak eta estrategiak abiaraztea*

*5. multzoa: Adingabeekiko gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea ebaluatzea*

*6. multzoa: Familiekiko esku-hartzea ebaluatzea*

<table>
<tr><th colspan="2">0. unitate didaktikoa: MODULUAREN AURKEZPENA</th><th colspan="6">Iraupena: 1 ordu</th></tr>
<tr><td colspan="8">Ikaskuntzaren helburuak:<br>1. Moduluaren garapenaren plangintza orokorra ezagutzea, baita taldeko kideak ere.<br>2. Irakasleak prestakuntza-prozesuaren kudeaketan aintzat hartu eta aplikatuko dituen irizpideak ulertzea.<br>3. Ikasleak moduluari dagokionez dituen eskubideak eta betebeharrak identifikatzea.<br>4. Moduluaren unitate didaktikoen arteko eta moduluaren eta beste moduluen arteko lotura nagusiak ulertzea.<br>5. Norberaren jakintzak identifikatzea, moduluan lortu behar diren jakintzei dagokienez.</td></tr>
<tr><th colspan="2" rowspan="2">EDUKIAK</th><th colspan="6">Multzoak</th></tr>
<tr><th>1</th><th>2</th><th>3</th><th>4</th><th>5</th><th>6</th></tr>
<tr><td>PROZEDURAZKOAK</td><td>• Zikloko moduluen arteko eta zikloaren eta erreferente dituen kualifikazioen arteko loturak aztertzea.<br>• Diziplinaren, metodologiaren, erlazioen eta antzeko beste gaien inguruan planteatzen diren alderdiak, arauak eta elementuak identifikatzea, eta euskarri egokian erregistratzea.</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>KONTZEPTUZKOAK</td><td>• Zikloa osatzen duten kualifikazioak eta moduluarekiko lotura.<br>• Moduluaren ekarpena zikloko helburuak lortzeko garaian.<br>• Moduluaren helburuak.<br>• Modulua eta unitate didaktikoak ebaluatzeko irizpideak.</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td>JARRERAZKOAK</td><td>• Taldeko kide guztiengan, baita irakaslearengan ere, desiragarriak diren portaeren inguruan adostasuna lortzearen garrantzia baloratzea.<br>• Moduluaren garapenean jarraitu beharreko arauak eta irizpideak.</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
</table>

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ZER egingo dudan edo duten<br>Jarduera mota | Helburu inplikat. | D. | NORK | | NOLA egingo den | ZERTARAKO egingo den | ZEREKIN egingo den |
| | | | Ir. | Ik. | | | |
| J1 Ikasleen eta irakaslearen aurkezpena. | 1 | 10 m. | X | X | Irakasleak eta ikasleek nork bere burua aurkeztuko dute. Irakasleak iradokiko ditu aurkezpenean interesgarriak izan daitezkeen alderdiak, eta informazio bat edo bestea ematea hautazkoa izango da. | Helburua da hasierako ezagutza lortzea eta gizarte-oztopoak haustea, taldeko kideen arteko komunikazioa erraztearren.<br>Aurreko ikasturtetik sortutako taldea denean, ez da jarduera hau beharrezkoa izango. | Ez da bitarteko berezirik behar. |
| J2 Programazioa osatzen duten elementuen aurkezpena. | 2-4 | 10 m. | X | X | Irakasleak programazioa osatzen duten elementuak, ordutegiak eta abar aurkeztuko ditu, eta, horretarako, eskema bat erabiliko du edo baliabide informatiko bidezko aurkezpena egingo du. | Ikasleek moduluaren gaiaren programazioari, egiturari, loturei, denborari eta iraupenei buruzko ikuspegi orokorra jaso beharko dute, besteak beste. | Arbela.<br>Power Point-eko aurkezpena edo antzekoa.<br>Kronogramak<br>Informazioa duten fotokopiak. |
| J3 Prestakuntza-prozesuaren kudeaketa gidatuko duten irizpideen eta arauen aurkezpena. | 2-3 | 10 m. | X | X | Irakatsi eta ikasteko prozesua kudeatzeko erabiliko diren askotariko irizpideak ezagutaraziko ditu irakasleak. Gardenkiez edo beste elementu batzuez lagundutako ahozko azalpena erabiliko du. Hortaz, azterketak zuzentzeko eta ebaluatzeko irizpideak, barne-erregimeneko araudia, diziplina-erantzukizunak, eta abar azalduko ditu.<br>Zalantza guztiak argitzeko denbora-tartea zabalduko da. | Horrela, ikasleek ikasketa, gizarte eta harremanen arloko esparrua ezagutu eta ulertuko dute, eta arauzko esparru horretara moldatu ahal izango dute haien jarduna. | Ikasgelan edo lantegi-ikasgelan egin daiteke jarduera, eta ez da baliabide berezirik behar. |
| J4-E1 Egin beharreko lanbide-moduluaren gainean ikasleek aurretik dituzten ezagupenen identifikazioa. | 5 | 30 m. | X | X | Jarduera hori elkarrizketaren bidez garatu ahal izango da, baita ikasleek erantzun beharreko irakaslearen galderen bidez, edo, bestela, ondorio horretarako prestatutako galdera irekien bidez edo erantzun anitzeko galderak dituen galdera sorta baten bidez. | Moduluan garatuko diren edukiei dagokienez, ikasleen abiapuntuko jakintza-maila ezagutu nahi da. Abiapuntuko jakintza hori ezagutzeak programazioa berregituratzeko eta taldearen eta gizabanakoen errealitatera egokitzeko aukera emango dio irakasleari. | Galdera sortak. |

| OHARRAK |
| --- |
| • Nahikoa izango da J1 jarduera moduluetakoren batean egitea. Zikloko taldeak adostu beharko du zein modulutan egingo den.<br>• J4 jarduera mantendu ahal izango da, nahiz eta unitate didaktikoetako bakoitzean hasierako ebaluazioa barnean hartzen duen jarduera egin. Bi jarduera horiek bateragarriak eta osagarriak izango dira beti. Aurretiazko jakintzetarako lehen hurbilketa izan daiteke, ondoren, unitate bakoitzean abiapuntuko jakintza horretan gehiago sakontzeko.<br>• Modulu honen unitate didaktikoetan, jarduerak irakatsi eta ikastekoak (J) edo ebaluaziokoak (E) izan daitezke. Zenbaitetan, jarduera bera, irakatsi eta ikastekoa ez ezik, ebaluaziokoa ere izan daiteke. Halakoetan, jarduera hori (Jn-Em) gisa adieraziko da eta hiru motak bilduko ditu. J-en zenbakikuntza (n) eta E-ena (m) elkarrekiko independenteak dira. |

| 1. unitate didaktikoa: ADINGABEEKIN GIZARTE ETA HEZKUNTZA ARLOAN ESKU HARTZEKO PROGRAMAK ETA JARDUERAK DISEINATZEA | Iraupena: 15 ordu |
|---|---|

*IE1: Adingabeen zentroetan hartutako haurrei zuzenduta, gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko programak eta jarduerak planifikatzen ditu. Horretarako, haurrei arreta eskaintzeko erakundearen eredua eta indarrean dagoen araudia aztertzen ditu.*

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Europar Batasunean haurrei arreta eskaintzeko erabiltzen diren ereduen arteko aldeak identifikatzea.
2. Arreta-ereduak itxuratzeko garaian, haurtzaroaren kontzeptuak duen eragina justifikatzea.
3. Haurrei arreta eskaintzeko gizarte-zerbitzuen sarearen ezaugarri esanguratsuenak identifikatu eta deskribatzea.
4. Haurren arreta-zerbitzuen inguruan indarrean dagoen legeria aztertzea.
5. Haurrentzako arreta-zentroen egitura antolamendukoa eta funtzionala deskribatzea.
6. Adingabeen zentroetako gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea arautzen duten dokumentuak identifikatzea.
7. Haurren ezaugarriekin eta zentroaren gizarte- eta hezkuntza-ereduaren ezaugarriekin bat datozen helburuak finkatzea.
8. Esku hartzeko jarduera, baliabide eta estrategia egokiak proposatzea.
9. Beharrezko espazioak eta denborak aurreikustea.
10. Prozesuan inplikatutako beste profesional batzuekin koordinatzeko eta informazioa trukatzeko bideak eta mekanismoak ezartzea.
11. Esku-hartzearen arrakastan talde-lanak duen garrantzia baloratzea.

| EDUKIAK | | Multzoak | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| PROZEDURAZKOAK | • Prebentzioan eta segurtasunean jarduteko plan bat diseinatzea. | X | | | | | |
| | • Familien esku-hartzea erraztuko duten jarduerak eta estrategiak hautatzea. | X | | | | | |
| | • Litezkeen gatazketarako jardunbideak hautatzea. | X | | | | | |
| | • Litezkeen gatazkak ebazten lan egiteko jarduerak diseinatzea. | X | | | | | |
| | • Adingabearen inguruko aldagaien kontrola diseinatzea. | X | | | | | |
| | • Haurren eskubideei buruzko legeriaren artikulu nagusiak aztertzea. | X | | | | | |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| KONTZEPTUZKOAK | • Haurrei buruzko legeria: eskubideak eta babesa.<br>• Haurren inguruko nazioarteko erakundeak.<br>• Adingabeen babesa. Alderdi juridikoak.<br>• Adingabeekin esku hartzeko baliabideak.<br>• Haurrei arreta eskaintzeko programak eta zerbitzuak.<br>• Arrisku-egoerak antzemanez gero jarraitu beharreko jardun-protokoloak.<br>• Laguntza-programak.<br>• Haurrei arreta eskaintzeko zerbitzuak. | X<br>X<br>X<br>X<br>X<br>X<br>X<br>X | | | | | |
| JARRERAZKOAK | • Adingabeekin gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzean talde-lanak duen garrantziaz jabetzea.<br>• Esku-hartzearen programazioan haurtzaroaren kontzeptuak duen eraginaz jabetzea.<br>• Kideen arteko errespetuzko tratua. | X<br>X<br>X | | | | | |

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota | Helburu inplikat. | D. | NORK Ir. | NORK Ik. | NOLA egingo den | ZERTARAKO egingo den | ZEREKIN egingo den |
| J0 Unitate didaktikoaren aurkezpena. | | 1 h | X | | Irakasleak, eskema baten bidez, unitate didaktikoan zehar landu beharreko edukiak aurkeztuko ditu. | Ikasleek argi izan dezaten bai landu beharreko edukia, bai eta hura lantzeko modua ere. Gainera, ikaskuntzari jarrera positiboarekin ekin diezaien. | Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J1 Azterketa, oinarrizko terminologiari buruzkoa. | 1,2,3 | 1 h | X | X | Irakasleak ideia-zaparrada bat proposatuko du "haurtzaro" terminoaren inguruan, eta, amaitzeko, abiapuntuko kontzeptu garrantzitsu batzuk argituko ditu, esaterako: haurtzaroa, arriskuan dagoen adingabea, esku-hartzea... | Ikasleek, terminologiari dagokionez, abiapuntua argi izan dezaten. | Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J2 Azterketa, haurren eskubideei eta, bai eskala nazionalean, bai nazioartekoan, haien alde lan egiten duten erakundeei buruzkoa. | 1,2,3 | 2 h | X | X | Irakasleak ikasleei egungo zenbait berri emango dizkie haurtzaroaren, haurren eskubideen eta esku-hartzeko ereduen inguruan (Europako esparruan). Albisteak irakurri ondoren, ikasleek, idatziz, banakako gogoeta egingo dute. Amaitzeko ondorioak bateratuko dituzte.<br>Jarduera hau 1. moduluan proposatutako prentsa- | Ikasleak jabetu daitezen haurtzaroaren inguruko mundu-mailako egoerez, eta jarrera kritikoaz iritzia eman dezaten. | Berriak.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | karpetarekin osa daiteke. Gainera, prentsa-karpeta osatzeko balio dezake. | | |
| J3 Azalpena eta praktika autonomoa: haurrentzako arreta-zerbitzuei buruzko legeria eta egun abiarazitako programak. | 4 | 5 h | X | X | Irakaslea haurren arreta-zerbitzuen inguruan indarrean dagoen legeriaren oinarrizko atalei buruz arituko da. Oinarri teorikoa lortu ondoren, ikasleek egun ikastetxeetan abiarazi diren programak eta jarduerak bilatuko dituzte. | Ikasleek adingabeei buruzko legeria ezagutu eta azter ditzaten, dauden programen eta legearen beraren bitartez. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Ordenagailua.<br>Proiektorea.<br>Interneterako konexioa.<br>Egunkariak...<br>Lanerako material pertsonala. |
| J4 Informazio-hitzaldia, haurrentzako arreta-zerbitzuren bati buruzkoa. | 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11 | 1 h | | | Haurrentzako arreta-zerbitzuetako aditu bat ikasgelara joango da. | Ikasleak egungo jardunbidearekin harremanetan jar daitezen, eta adingabeentzako zentroen funtzionamendua eta bertan garatzen den jarduera bertatik bertara ezagutu ditzaten. | Haurrentzako arreta-zerbitzuetako kontakturen bat. |
| J5-E1 Elkarlana: haurrentzako arreta-zentroak, antolamendua eta funtzionamendua. | 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11 | 5 h | | X | Ikasleek, 4 edo 5 laguneko taldetan, ikerlan bat egingo dute. Horren ondoren, adingabearentzako dauden arreta-zentroen eta horien ohiko funtzionamenduaren inguruan ondorioak aterako dituzte. Gainera, zenbait jarduera planifikatuko dituzte, geroago horiek gauzatzeko.<br>Ikerlana idatziz irakasleari emateaz gain (horrek balora dezan), talde txiki bakoitzaren ordezkariak emaitza talde handian azalduko du. | Ikasleak gai izan daitezen unitatean zehar jorratutako informazioa eta jarduera hau egiteko berariaz hautatutakoa kudeatzeko.<br>Ikasleen konpetentziak maila guztietan lantzeko.<br>Esparru horretan jarduerak diseinatzen ohitzeko. | Ordenagailuak.<br>Interneterako konexioa.<br>Lan pertsonalerako materiala.<br>Azalpenerako beharrezkoa den materiala. |

**OHARRAK**

- Jardueren iraupena taldearen eta beraren ezaugarrien arabera erabakiko da. Era berean, materiala aldatzeko aukera ematen da, betiere helburuak lortzeko beharrezkoak diren eduki guztiak lantzen badira.
- Informazio-hitzaldiaren ordez, irteera bat edo antzeko zerbait egin daiteke. Nolanahi ere, interesgarritzat jotzen da, ahal dela, ikasleek ikasgelan teorian jorratu den errealitatea zuzenean ezagutzeko aukera izatea.
- Ebaluazio-jarduerek (J-E gisa adierazten dira) moduluaren azken balorazioa egiten lagunduko dute.

| 2. unitate didaktikoa: FAMILIEKIN ESKU HARTZEKO PROGRAMAK ETA JARDUERAK DISEINATZEA | Iraupena: 15 ordu |
|---|---|

*IE2: Familiekin esku hartzeko programak eta jarduerak planifikatzen ditu, eta esku-hartzearen eginkizuna haurraren hezkuntza eta garapen osoan justifikatzen du.*

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Haurraren garapean osoan familiako hazkuntza-jarraibideek duten eragina identifikatu eta deskribatzea.
2. Hezkuntzaren eta gizartearen esparruetatik familiekin esku hartzeko eta laguntzeko programak deskribatzea.
3. Familiaren parte-hartzea eta, hala dagokionean, bere hezkuntza-konpetentzia bultzatzeko estrategiak, jarduerak eta baliabideak proposatzea.
4. Jardueren programazioan familia-aldagaiak kontuan hartzea.
5. Familiekiko lankidetzan kontuan hartu beharreko hezkuntza-irizpideak, alderdi formalak eta jarrerak identifikatzea.
6. Lehen urteetan familiaren eta erakundearen arteko lankidetzak duen garrantzia baloratzea.
7. Arrisku sozialeko egoeran dauden familien inguruko arazoak eta adierazleak deskribatzea.
8. Tratu txarraren seinale diren adierazleak eta baldintzak identifikatzea.
9. Familian tratu txar edo arriskuko egoera antzeman ondoren jardun-protokoloak zehaztea.
10. Haurren arrisku eta/edo tratu txarreko egoerak antzeman eta jakinarazteko garrian hezitzailearen eginkizuna baloratzea.
11. Familia-egoera guztiekiko errespetuzko jarrera izateko beharra baloratzea.

| EDUKIAK | | Multzoak 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| PROZEDURAZKOAK | • Informazioa familiei helarazteko, hura biltzeko tresnak lantzea. | | X | | | | |
| | • Gurasoekin komunikatzeko tresnak hautatzea. | | X | | | | |
| | • Gatazkarik izanez gero familiarekin jarduteko planak prestatzea. | | X | | | | |
| | • Informazioa trukatzeko teknikak diseinatzea. | | X | | | | |
| | • Gatazkak kontrolatzeko jarraipen-tresnak prestatzea. | | X | | | | |
| | • Erreakzioak hobeto ulertzeko, programazio neurolinguistikoko praktikak prestatzea. | | X | | | | |
| | • Hezkuntza Sailaren arabera, bete beharreko arau garrantzitsuenak hautatzea. | | X | | | | |
| | • Familiekiko esku-hartzearen jarraipena aztertzea. | | X | | | | |
| | • Elkarrizketen suposizio praktikoetan, hezitzailearen estrategiak ebaluatzea. | | X | | | | |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| KONTZEPTUZKOAK | • Familia, hezkuntza-agente gisa. Bilakaera.<br>• Arrisku sozialeko egoerak antzematea.<br>• Familiekin lan egiteko materialak, espazioak eta baliabideak.<br>• Familiarekiko harremanetan gertatu ohi diren arazoak.<br>• Gizarte-zerbitzuak.<br>• Haurrentzako arreta-zentroak.<br>• Arrisku-egoera bakoitzari buruzko kontrol-dokumentazioa.<br>• Arrisku sozialeko egoeran dauden familien inguruko arazoak.<br>• Legezko alderdiak familiekiko esku-hartzean.<br>• Familiarekin esku hartzeko ereduak.<br>• Familiarekiko harremana zirkularren eta txostenen bidez.<br>• Parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko estrategiak.<br>• Tratu txarra: antzematea, jakinaraztea, legeria, esku-hartzea, gizarte-zerbitzuak. | | X<br>X<br>X<br>X<br>X<br>X<br>X<br>X<br>X<br>X<br>X<br>X<br>X | | | | |
| JARRERAZKOAK | • Jarrera arduratsua gatazken aurrean.<br>• Familiekin lankidetzan aritzearen garrantzia baloratzea.<br>• Askotariko hezkuntza-esperientziak behatzeko interesa.<br>• Erkidego bakoitzaren jarraibide kulturalekiko errespetua.<br>• Tratu txarreko litezkeen kasuetan parte hartzen duten agenteekin eta profesionalekin lankidetzan aritzeko jarrera.<br>• Tratu txarreko litezkeen kasuak antzemateko behaketaren garrantzia baloratzea. | | **X<br>X<br>X<br>X<br>X<br>X** | | | | |

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota | Helburu inplikat. | D. | NORK Ir. | NORK Ik. | NOLA egingo den | ZERTARAKO egingo den | ZEREKIN egingo den |
| J0 Unitate didaktikoaren aurkezpena. | | 1 h | X | | Irakasleak unitatea aurkeztuko du. | Ikasleak gaian koka daitezen, eta abiapuntua eta lortu beharreko helburuak errazago bistaratu ditzaten. | Power Point-eko aurkezpena. Ordenagailua. |
| J1 Azterketa, oinarrizko terminologiari buruzkoa. | Guztiak | 1 h | X | X | Irakasleak ideia-zaparrada bat proposatuko du “familia” terminoaren inguruan, eta, amaitzeko, unitatea jorratzeko abiapuntuko kontzeptu garrantzitsu batzuk argituko ditu. | Ikasleek, terminologiari dagokionez, abiapuntua argi izan dezaten. | Arbela. Klarionak. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J2 Azalpena eta praktika autonomoa:<br>• "Familia" kontzeptuaren bilakaera eta garrantzia.<br>• Familia motak. | 1 | 1 h<br><br>1 h | X | <br><br>X | Irakasleak "familia" kontzeptuaren bilakaerari eta hezkuntza-agente gisa duen garrantziari buruz hitz egingo du.<br><br>Jarraian, ikasleek, banaka, dauden familia moten eta bakoitzean nagusitzen diren hazkuntza-jarraibideen inguruan sakonduko dute. | Ikasleek dauden familia motak eta horien hazkuntza-jarraibideek adingabearen eboluzioan duten eragina ezagutu ditzaten. | Power Point.<br>Ordenagailua.<br>Proiektorea.<br>Ordenagailuak.<br>Interneterako konexioa.<br>Lan pertsonalerako materiala. |
| J3 Azalpena, arrisku-egoerei eta familiaren esku-hartze ereduei buruzkoa. Programak eta jarduerak. | 1, 2, 3 | 2 h | X | | Irakasleak adingabea egon daitekeen arrisku-egoerak azalduko ditu. Era berean, esku hartzeko eredu eraginkorrenak zein diren ezarriko du eta, ondorioz, gatazka ebazteko gauzatu beharreko programak eta jarduerak lantzeko proposamen bat egingo du. | Ikasleak jabetu daitezen haurtzaroan izan daitezkeen arazoez, eta egoera horietako batzuk antzemateko duten eginkizun garrantzitsua ezagutu dezaten. | Ordenagailua.<br>Power Point.<br>Proiektorea. |
| J4-E2 Elkarlana:<br>• Ohiko familia-arazoetarako konponbideak.<br>• Familiekin lankidetzan aritzeko tresnak. | 1, 4, 5, 6, 7, 8 | 5 h | X | | Ikasleek, binaka, ikerlan bat egingo dute. Horren ondoren, nabarmen heziketakoak diren bi material hauek jorratuko dituzte:<br><br>• Jardunbide egokien eskuliburua, familia-arazoekin eta litezkeen konponbideekin (atal honetan, zerbitzuak barne direla).<br>• Dosierra, familiekin komunikatzeko tresnekin: zirkularrak, txostenak...<br>Bi produktuak irakasleari emango zaizkio, berak ebaluatzeko. | Ikasleek arazo ohikoenetarako konponbideak zein diren jakin dezaten, eta familiekin lankidetzan aritzeko tresnak eta horiekin garatzen diren jarduerak bertatik bertara ezagutu ditzaten. | Ordenagailuak.<br>Interneterako konexioa.<br>Bestelako iturriak.<br>Lan pertsonalerako materiala. |
| J5 Bideoforuma: haurrenganako tratu txarrari buruzko filma. | 8, 9, 10, 11 | 3 h | X | X | Ikasleek haurrenganako tratu txarrari buruzko film bat ikusiko dute. Horren ondoren, eztabaida txiki bat egingo da. | Laneko bizitzan zehar sor daitezkeen egoeren aurrean jarrera kritikoa har dezaten. | Filma.<br>Bideo- edo DVD-erreproduzitzailea. |
| J6-E3 Azken ebaluazioa: idatzizko proba bat ebaztea. | Guztiak | 1 h | | X | Ikasleek azken bi unitateetan landutako gaiei buruzko galdera sorta bat erantzungo dute banaka. | Gelan landutako azken ikasgaiarekin lotutako konpetentzia teknikoak bereganatu direla egiaztatzeko. | Idatzizko proba. |

| OHARRAK |
| --- |
| • Jardueren iraupena taldearen eta beraren ezaugarrien arabera erabakiko da. Era berean, materiala aldatzeko aukera ematen da, betiere helburuak lortzeko beharrezkoak diren eduki guztiak lantzen badira.<br>• Ebaluazio-jarduerek (J-E gisa adierazten dira) moduluaren azken balorazioa egiten lagunduko dute. |

| 3. unitate didaktikoa: ADINGABEEKIN GIZARTE ETA HEZKUNTZA ARLOKO PROGRAMAK ETA JARDUERAK ABIARAZTEA | Iraupena: 12 ordu |
|---|---|

*IE3: Arrisku-egoeran dauden edo adingabeentzako zentroetan hartuta dauden haurrei zuzendutako gizarte- eta hezkuntza-jarduerak abiarazten ditu, eta horiek esku-hartzearen helburuekin eta estrategia metodologikoekin lotzen ditu.*

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Informazioa lortzeko teknikak eta tresnak erabiltzea.
2. Esleitutako taldearen eta testuinguruaren ezaugarriak eta beharrak identifikatzea.
3. Espazioak. baliabide materialak eta giza baliabideak antolatzea.
4. Estrategia metodologikoak aplikatzea.
5. Familia-giroa, segurtasun afektibokoa eta konfiantzazkoa sortzeko beharra baloratzea.
6. Zentroaren eguneroko zereginak eta bakoitzaren erritmoak bateragarri egiten laguntzea.
7. Larrialdi-egoerak eta ezustekoak ebaztea.
8. Prebentzio- eta segurtasun-neurriak hartzea.
9. Haurren proposamenak entzuteko jarrera hartzea, eta haiengan eragina duten erabakietan parte hartzen uztea.
10. Talde-lanaren eta beste profesional batzuekiko lankidetzaren beharra justifikatzea.

| EDUKIAK | | Multzoak | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| PROZEDURAZKOAK | • Arrisku-egoerak behatzen lagunduko duten tresnak prestatzea. | | | X | | | |
| | • Arrisku-sektore bakoitzera egokitutako esku-hartze jarduerak prestatzea. | | | X | | | |
| | • Adingabeekin lan egiteko baliabideak eta estrategiak prestatzea. | | | X | | | |
| | • Haurrekin gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzeak garatzen dituztenen artean kontrol- eta jarraipen-planteamendu bat diseinatzea. | | | X | | | |
| | • Familien esku-hartzea erraztuko duten jarduerak eta estrategiak hautatzea. | | | X | | | |
| | • Adingabeentzako zentroetako estrategia metodologikoak aztertzea. | | | X | | | |
| | • Adingabeentzako zentro bateko talde multiprofesionalean profesional bakoitza identifikatzea. | | | X | | | |
| | • Sartzeko protokoloak aztertzea. | | | X | | | |
| | • Prebentzioan eta segurtasunean jarduteko plan bat diseinatzea. | | | X | | | |
| | • Ikastetxearen heziketa-proiektu bat diseinatzea. | | | X | | | |
| | • Banakako esku-hartzea diseinatzea. | | | | | | |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| KONTZEPTUZKOAK | • Legeria.<br>• Zentro bateko adingabeen ezaugarriak.<br>• Sartzeko protokoloa.<br>• Estrategia metodologikoak.<br>• Talde multiprofesionalaren funtzioak.<br>• Familiaren eta eskolaren arteko koordinazioa. | | | X<br>X<br>X<br>X<br>X<br>X | | | |
| JARRERAZKOAK | • Parte hartzen duten agenteekin eta profesionalekin lankidetzan aritzeko jarrera.<br>• Adingabea zentrora eramaten duten egoerak eta arrazoiak errespetatzea.<br>• Taldearen eta familiaren arteko koordinazioa baloratzea.<br>• Adingabearen hezkuntza hezitzaileak duen eginkizuna baloratzea.<br>• Adingabearekiko errespetu eta enpatiazko jarrera. | | | X<br>X<br>X<br>X<br>X | | | |

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota | Helburu inplikat. | D. | NORK | | NOLA egingo den | ZERTARAKO egingo den | ZEREKIN egingo den |
| | | | Ir. | Ik. | | | |
| J0-E0 Unitate didaktikoaren aurkezpena. | | 1 h | X | X | Irakasleak ikasleei ideia-zaparrada bat proposatuko die unitatearen izenburuaren inguruan. Taldeak egindako ekarpenen bidez, irakasleak jorratu behar diren edukiak amaituko ditu. | Ikasleek gaiaren inguruan dituzten aldez aurreko ezagupenak identifikatzeko, hau da, abiapuntua ebaluatzeko.<br>Ikasleak gai izan daitezen unitate honek gainerakoarekin eta, bereziki, UD1 unitatearekin duen lotura ikusteko. | Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J1 Praktika autonomoa, adingabeentzako zentroetan egiten diren gizarte- eta hezkuntza-arloko programei eta jarduerei buruzko informazioa bilatzeko. | 1, 2 | 2 h | X | | Ikasleek adingabeentzako zentroetan egun abiarazi diren programak eta jarduerak bilatuko dituzte. Bilaketa egin ondoren, lortutako informazioa ikasgelan bateratuko da. | Ikasleek kontuan har dezaten mugitzen ari direneko esparruaren errealitatea eta gauzak egiteko moduen aniztasuna. | Ordenagailuak. Interneterako konexioa. Bestelako informazio-iturriak. |
| J2-E1. Azalpena eta elkarlana, adingabeentzako zentroetan | 1, 2, 10 | 2 h | X | X | Ikasleek, irakaslearen azalpen laburraren ondoren, adingabeentzako zentroetan profesionalek erabiltzen duten | Ikasleak jabetu daitezen prozesu osoan zehar lortutako datu guztiak | Power Point.<br>Ordenagailua. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| erabiltzen den dokumentazioari buruz. | | | | | dokumentazioa beteko dute. Horretarako, UD1 unitatean lortutako informazioa zabaldu beharko du, protokoloei, planei... dagokienez. Era berean, jarraitu beharreko estrategia metodologikoek ezarri beharko dituzte. | planifikatu eta erregistratzearen garrantziaz. | Proiektorea.<br>Lan pertsonalerako materiala. |
| J3-E2 Role-playinga, jarduerak abiarazteari buruzkoa. | 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10 | 3 h | | X | Ikasleek, aurretik lan egin duteneko talde beretan, beharrezkoa den guztia prestatuko du (materiala, espazioak...), adingabeentzako zentroetan gauzatu eta UD1 unitatean diseinatu diren gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko jardueraren bat abian jartzeko. | Mota horretako zentroetan gauzatzen diren jarduerak ezagutzeko.<br>Jarduerak abian jartzeko eskakizunak baloratzeko. | Jarduerak abiarazteko beharrezkoak diren baliabide guztiak. |
| J4 Azalpena eta praktika autonomoa: jarduerak abiarazteko zailtasunei buruzko azterketa. | 7, 8, 9 | 2 h | | X | Ikasleek, irakaslearen azalpen laburraren ondoren, eta aurreko jardueran abiarazitako jarduera kontuan izanda, jarduerak aurrera eramateko garaian sarrien agertzen diren zailtasunak aztertuko ditu eta litezkeen hautabideak proposatuko ditu. | Ikasleek jakin dezaten jarduerak abiaraztean zein arazo sor daitezkeen eta hautabideak asmatzeko beharra balora dezaten, edozein ezustekoren aurrean prestatuta egoteko. | Power Point.<br>Ordenagailua.<br>Proiektorea.<br>Lan pertsonalerako materiala. |
| J5 Adingabeentzako zentro bat bisitatzea. | Guztiak | 2 h | | | Ikasleak adingabeentzako zentro batera joango dira. Bertan, funtzionamenduari buruzko informazioa bilduko du, irakasleak emandako gidoiaren laguntzaz. | Zentroaren funtzionamendua eta, zehazkiago, bertan egiten diren jarduerak bertatik bertara ezagutzeko. | Adingabeentzako zentro batekin harremanetan jartzea.<br>Bertara joateko beharrezko guztia. |

OHARRAK

- Jardueren iraupena taldearen eta beraren ezaugarrien arabera erabakiko da. Era berean, materiala aldatzeko aukera ematen da, betiere helburuak lortzeko beharrezkoak diren eduki guztiak lantzen badira.
- Kontuan izanik modulu hau bigarren kurtsokoa dela, jarduöretan ikasleek gero eta nagusitasun handiagoa izango dute, eta irakasleek hartuko dute bitartekotzaren eta lankidetzaren ardura prozesuan zehar.
- Ebaluazio-jarduerek (J-E gisa adierazten dira) moduluaren azken balorazioa egiten lagunduko dute.

| 4. unitate didaktikoa: FAMILIEKIN ESKU HARTZEKO PROGRAMAK, JARDUERAK ETA ESTRATEGIAK ABIARAZTEA | Iraupena: 12 ordu |
|---|---|

*IE4: Haurren gizarte- eta hezkuntza-prozesuan familien lankidetza errazten duten jarduerak eta estrategiak abiarazten ditu, eta horiek haien ezaugarriekin eta beharrekin, eta esku-hartzearen helburuekin lotzen ditu.*

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Familiek erakundean parte hartzeko bideak identifikatzea.
2. Familiaren hezkuntza-beharrak eta/edo partaidetzakoak identifikatzea.
3. Familiekin egin beharreko bilera eta elkarrizketetarako gidoiak prestatzea.
4. Bilerak eta elkarrizketak egiteko, ezarritako helburuei eta gidoiei jarraitzea.
5. Familiek parte hartzeko ekimen eta proposamenekiko jarrera harkorra izatea.
6. Baliabideak, espazioak eta denborak jardueraren helburuen arabera antolatzea.
7. Ezusteko egoeren aurrean erantzutea.
8. Familiekiko harremanetan jarrera positiboa izatea.
9. Familiarekiko harremanetan hezitzailearen gizarte-trebeziek duten garrantzia baloratzea.
10. Komunikazioa familien ezaugarrietara moldatzea.

| EDUKIAK | | Multzoak | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| PROZEDURAZKOAK | • Arrisku-egoerak behatzen lagunduko duten tresnak prestatzea.<br>• Arrisku-sektore bakoitzera egokitutako esku-hartze jarduerak prestatzea.<br>• Elkarrizketak diseinatzea.<br>• Familien esku-hartzea erraztuko duten jarduerak eta estrategiak hautatzea. | | | | X<br>X<br>X<br>X | | |
| KONTZEPTUZKOAK | • Elkarrizketa baten motak eta ezaugarriak.<br>• Elkarrizketaren elementuak: modua, espazioa, denbora, formak...<br>• Hezitzailearen egitekoa elkarrizketan.<br>• Programazio neurolinguistikoari buruzko nozioak.<br>• Elkarrizketen erregistroak. | | | | X<br>X<br>X<br>X<br>X | | |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| JARRERAZKOAK | • Familia-egoera guztiekiko errespetuzko jarrera.<br>• Adingabeentzako programetan gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzen duten agente eta profesionalekiko lankidetza-jarrera.<br>• Gizarte- eta hezkuntza-prozesuan familiekin taldean lan egitearen garrantziaz jabetzea.<br>• Elkarrizketetan hezitzaileak dituen jarrerak baloratzea. | | | | X<br>X<br><br>X<br>X | | |

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota | Helburu inplikat. | D. | NORK Ir. | NORK Ik. | NOLA egingo den | ZERTARAKO egingo den | ZEREKIN egingo den |
| J0-E0. Unitate didaktikoaren aurkezpena. | | 1 h | X | X | Irakasleak, ikasleek banaka egin duten eta ondoren taldean aztertuko den hasierako galdera sortaren ondoren, unitate didaktiko honetan landu beharreko edukiak aurkeztuko ditu. | Ikasleek unitate honen edukiak eta horiek gainerako unitate didaktikoekin duten lotura ezagutu ditzaten. | Hasierako galdera sorta. |
| J1 Azalpena, adingabearen familiek harrera-zentroaren bizitzan parte hartzeko duten bideei buruzkoa. | 1, 2 | 2 h | X | | Irakasleak adingabeen zentroko egonaldian adingabearekin harremanetan egoteko familiak dituen aukerak azalduko ditu. Era berean, harreman hori gauzatzeko dauden moduen adibideak jarriko ditu, eta horretarako beharrezkoak diren baliabideak azalduko ditu. | Ikasleek zentroaren eta familiaren arteko komunikazio-aukerak azter ditzaten, eta prozesu horretan agertzen diren zailtasun ohikoenez jabetu daitezen. | Power Point.<br>Ordenagailua.<br>Proiektorea. |
| J2 Azalpena eta praktika autonomoa, elkarrizketaren inguruan. | 3, 4, 5, | 4 h | X | X | Irakasleak, elkarrizketa bat prestatzearekin lotutako jarraibide orokorretatik abiatuta, ikasleei taldeka elkarrizketa bat egiteko eskatuko die. | Ikasleak jabetu daitezen elkarrizketa batean jorratu beharreko alderdiez eta hura egiteko moduaz. | Power Point.<br>Ordenagailua.<br>Proiektorea.<br>Lan pertsonalerako materiala. |
| J3-E1 Role-playinga, jarduerak abiarazteari buruzkoa. | 6, 7, 8, 9, 100 | 4 h | | X | Ikasleek, aurreko jardueran lan egin duteneko taldeetan banatuta, talde handiaren aurrean, familiekin egindako jarduera aurkeztu edo zehatuko dute. Era berean, egoera erreal bat simulatuz elkarrizketa praktikatuko dute. | Mota horretako zentroetan gauzatzen diren jarduerak ezagutzeko.<br>Jarduerak abian jartzeko eskakizunak baloratzeko. | Jarduerak abiarazteko beharrezkoak diren baliabide guztiak. |
| J4-E2 Azken ebaluazioa: idatzizko proba bat ebaztea. | Guztiak | 1 h | | X | Ikasleek azken bi unitateetan landutako gaiei buruzko galdera sorta bat erantzungo dute banaka. | | Idatzizko proba. |

| OHARRAK |
| --- |
| • Jardueren iraupena taldearen eta beraren ezaugarrien arabera erabakiko da. Era berean, materiala aldatzeko aukera ematen da, betiere helburuak lortzeko beharrezkoak diren eduki guztiak lantzen badira.<br>• Kontuan izanik modulu hau bigarren kurtsokoa dela, jardueretan ikasleek gero eta nagusitasun handiagoa izango dute, eta irakaslea prozesuan artekaria eta laguntzailea izango da.<br>• Ebaluazio-jarduerek (J-E gisa adierazten dira) moduluaren azken balorazioa egiten lagunduko dute. |

<table>
<tr><td colspan="8">5. unitate didaktikoa: ADINGABEEKIN GIZARTE ETA HEZKUNTZA ARLOAN ESKU HARTZEKO PROZESUA ETA HORREN EMAITZAK EBALUATZEA</td><td colspan="6">Iraupena: 10 ordu</td></tr>
<tr><td colspan="14">IE5: Adingabeen zentroetan hartutako haurrekiko gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzeen prozesua eta emaitza ebaluatzen du, eta ebaluazioa aldagai garrantzitsuekin eta erakundean ezarritako protokoloekin lotu du.<br><br>Ikaskuntzaren helburuak:<br>1. Ebaluazio-adierazleak hautatzea.<br>2. Haurrei buruzko informazioa lortzeko tresna egokiak diseinatu edo hautatzea.<br>3. Esku-hartzerako estrategiak, teknikak, eta jarraipen- eta ebaluazio-tresnak ezartzea.<br>4. Prozedura zuzenari jarraituz ebaluazio-tresnak aplikatzea.<br>5. Kontrol- eta jarraipen-dokumentuak betetzea.<br>6. Lortutako informazioa behar bezala interpretatzea.<br>7. Esku-hartzean aldatu beharreko alderdiak identifikatzea.<br>8. Esku-hartzea hobetzeko beharrezko neurriak proposatzea.<br>9. Taldekideei informazioa emateko, ezarritako protokoloei jarraitzea.<br>10. Beste profesional batzuen parte-hartzea eskatzen duten egoerak eta bete beharreko jardunbideak identifikatzea.<br>11. Familiei banan-banan eta modu ulergarrian ematea haurren aurrerabidearen berri.<br>12. Familiei emandako informazioetan haurraren eboluzioaren alderdi positiboak nabarmentzearen garrantzia baloratzea.</td></tr>
<tr><td colspan="2" rowspan="2">EDUKIAK</td><td colspan="6">Multzoak</td></tr>
<tr><td>1</td><td>2</td><td>3</td><td>4</td><td>5</td><td>6</td></tr>
<tr><td>PROZEDURAZKOAK</td><td>• Arrisku-egoerak ebaluatzen lagunduko duten tresnak prestatzea.<br>• Adingabeekiko lana ebaluatzeko baliabideak eta estrategiak prestatzea.<br>• Prebentzioan eta segurtasunean jarduteko plan bat diseinatzea.<br>• Familien esku-hartzea erraztuko duten jarduerak eta estrategiak hautatzea.</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td>X<br>X<br>X<br>X</td><td></td></tr>
<tr><td>KONTZEPTUZKOAK</td><td>• Informazioa bilatzea.<br>• Ebaluazioari datuak ekarriko dizkioten aldagaien kontrola aztertzea.<br>• Gizarte-zerbitzuak.<br>• Gizarte- eta hezkuntza-ebaluazioa: ezaugarriak, irizpideak...<br>• Ebaluazio-txostenak.</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td>X<br>X<br>X<br>X<br>X</td><td></td></tr>
</table>

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| JARRERAZKOAK | • Adingabeekin gizarte- eta hezkuntza-ebaluazioan parte hartzen duten agenteekin eta profesionalekin lankidetzan aritzeko jarrera.<br>• Gizarte- eta hezkuntza-prozesuan familiekin taldean lan egitearen garrantziaz jabetzea.<br>• Ebaluazioaren ondoren erabakiak hartzeko lankidetza-jarrera. | | | | | X<br>X<br>X | |

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota | Helburu inplikat. | D. | NORK Ir. | NORK Ik. | NOLA egingo den | ZERTARAKO egingo den | ZEREKIN egingo den |
| J0-E0 Unitate didaktikoaren aurkezpena. | | 1 h | X | X | Irakasleak, ikasleek banaka egin duten eta ondoren taldean aztertuko den hasierako galdera sortaren ondoren, unitate didaktiko honetan landu beharreko edukiak aurkeztuko ditu. | Ikasleek unitate honen edukiak eta horiek gainerako unitate didaktikoekin duten lotura ezagutu ditzaten. | Hasierako galdera sorta. |
| J1-E1 Praktika autonomoa, ebaluazio-tresnak bilatzeari buruzkoa. | 1, 2, 3 | 2 h | | X | Ikasleek, banaka, adingabeen zentroetan erabiltzen diren ebaluazio-tresnak bilatuko dituzte. Informazioa lortu ondoren, ikasle bakoitzak txosten bat egingo du. Bertan, tresna zein den adieraziko du, eta adibide bat zehaztu eta ekarriko du.<br>Horren ondoren, ikasleek irakasleari garaiz eta eraz emango diote txostena. | Ikasleak jabetu daitezen ebaluatzeko dauden trenez eta bakoitzak dituen zailtasunez edo abantailez. | Ordenagailuak. Interneterako konexioa. Bestelako informazio-iturriak. Lan pertsonalerako materiala. |
| J2-E2 Elkarlana, ebaluazio-tresnak landu eta abiarazteari buruzkoa. | 1, 2, 3, 4 | 4 h | | X | Ikasleek, lehen ezarritako taldeetan, gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzearen une guztietarako ebaluazio-tresnak landuko dituzte, hainbat estrategia eta teknika kontuan izanda. Era berean, tresna horiek abiarazteko kontuan hartu beharreko alderdiak ezarriko dituzte eta, kasu batzuk aurkeztu ondoren, horietako bat abiaraziko dute.<br>Azkenik, amaitzeko, talde handian bateratze-lana egingo da. Prestatutako materiala irakasleari emango zaio. | Ikasleak jabetu daitezen topatuko duten errealitatera egokituko diren ebaluazio-tresnak sortzeko beharraz eta bidean aurkitu ahal izango dituzten zailtasunak ezagutu ditzaten. | Lan pertsonalerako materiala. Kasuak. |
| J5 Azalpena eta praktika autonomoa, txostenak lantzearen inguruan. | 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12 | 2 h | X | X | Ikasleek, banaka lan eginda, irakaslearen azalpen laburraren ondoren, adingabe baten inguruko ereduzko txosten bat landuko dute. | Txostenak lantzen ohitzeko, eta horien prestaketan eta helaraztean sor daitezkeen zailtasunak baloratzeko. | Power Point.<br>Ordenagailua.<br>Proiektorea.<br>Lan pertsonalerako materiala. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J4 Eztabaida, ebaluazioaren garrantziari buruzkoa. | Guztiak | 1 h | X | X | Ikasleek, talde handian, ebaluazioak, eta kasu baten kontrola eta jarraipena behar bezala egiteak duten garrantziari buruz eztabaidatuko dute. Era berean, talde-lanaren garrantzia eta profesionalen artean lankidetzan aritzeko beharra baloratuko dituzte. | Etengabeko hobekuntzarako eta lan-ildo berriak ezartzeko, ebaluazioaren beharra balora dezaten. | Ikasgelako berezko baliabideak. |

OHARRAK

- Unitate didaktiko honetan, gizarte- eta hezkuntza-arloan adingabeekin esku hartzearen ebaluaziorako berariazko tresnak lantzen dira, eta alde batera uzten dira terminologiaren kontzeptuarekin lotutako alderdiak. Izan ere, ebaluazioaren gaia beste unitate batzuetan errepikatu eta zabalago jasotzen da.
- Ikastetxearen ahalbideen arabera, haurrentzako arreta-zerbitzuren batera beste irtenaldi bat egin liteke, ebaluazioari buruzko informazio gehiago jasotzeko.
- Ebaluazio-jarduerek (J-E gisa adierazten dira) moduluaren azken balorazioa egiten lagunduko dute.

| 6. unitate didaktikoa: FAMILIEKIN ESKU HARTZEKO PROZESUA ETA HORREN EMAITZAK EBALUATZEA | Iraupena: 10 ordu |
|---|---|

*IE6: Familiekiko esku-hartzeen prozesua eta emaitza ebaluatzen du, prozesuan garrantzitsuak diren aldagaiak identifikatzen ditu eta horien hautaketa justifikatzen du.*

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Ebaluazio-adierazleak hautatzea.
2. Tresna egokiak diseinatu edo hautatzea, alderdi hauei buruzko informazioa lortzeko: familia-egoera, familiaren hezkuntza-beharrak, eta familiak parte hartzeko aukerak eta nahia.
3. Ebaluazio-tresnak behar bezala aplikatzea.
4. Datuak behar bezala bildu eta interpretatzea.
5. Esku-hartzean aurreikusitakoarekiko desbideratzeak identifikatzea.
6. Egoera zailetan neurri zuzentzaileak proposatzea.
7. Familiak esku-hartzearen ebaluazioan parte hartzeko beharra baloratzea.
8. Zerbitzuaren eraginkortasuna eta kalitatea etengabe hobetzeko jarrera izatearen garrantzia baloratzea.

| EDUKIAK | | Multzoak | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| PROZEDURAZKOAK | • Familiekiko esku-hartzea ebaluatzen lagunduko duten tresnak prestatzea.<br>• Familien esku-hartzea erraztuko duten jarduerak eta estrategiak hautatzea.<br>• Esku-hartzeak ebaluatzeko irizpideak diseinatzea. | | | | | | X<br>X<br>X |
| KONTZEPTUZKOAK | • Informazioa biltzea: ezaugarriak, tresnak.<br>• Ebaluazio-prozesuan kontuan hartu beharreko aldagaiak aztertzea.<br>• Lortutako datuak erregistratzea.<br>• Ebaluazio-txostenak.<br>• Datuen isilpekotasuna.<br>• Ebaluazio-irizpideak. | | | | | | X<br>X<br>X<br>X<br>X<br>X |
| JARRERAZKOAK | • Familia-egoera guztiekiko errespetuzko jarrera.<br>• Familiekiko esku-hartzean parte hartzen duten agenteekin eta profesionalekin lankidetzan aritzeko jarrera.<br>• Gizarte- eta hezkuntza-prozesuan familiekin taldean lan egitearen garrantziaz jabetzea. | | | | | | X<br>X<br>X |

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ZER egingo dudan edo duten<br>Jarduera mota | Helburu inplikat. | D. | NORK<br>Ir. | <br>Ik. | NOLA egingo den | ZERTARAKO egingo den | ZEREKIN egingo den |
| J0 Unitate didaktikoaren aurkezpena. | | 1 h | X | | Irakasleak unitate didaktiko berriaren edukiak aurkeztuko ditu. | Ikasleak motibatuta has daitezen eta unitate honek gainerako unitate didaktikoekin duen lotura ikus dezaten. | Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J1-E1 Praktika autonomoa, ebaluazio-tresnak bilatzeari buruzkoa. | 1, 2, 3 | 2 h | | X | Ikasleek, banaka, familiekiko esku-hartzea baloratzeko erabiltzen diren ebaluazio-tresnak bilatuko dituzte.<br>Informazioa lortu ondoren, ikasle bakoitzak txosten bat egingo du. Bertan, tresna zein den adieraziko du, eta adibide bat zehaztu eta ekarriko du.<br>Horren ondoren, ikasleek irakasleari garaiz eta eraz emango diote txostena. | Ikasleak jabetu daitezen ebaluatzeko dauden trenez eta bakoitzak dituen zailtasunez edo abantailez. | Ordenagailuak. Interneterako konexioa. Bestelako informazio-iturriak. Lan pertsonalerako materiala. |
| J2-E2 Elkarlana, ebaluazio-tresnak landu eta abiarazteari buruzkoa. | 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8 | 4 h | | X | Ikasleek, ezarritako taldeetan, gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzearen une guztietarako ebaluazio-tresnak landuko dituzte, hainbat estrategia eta teknika kontuan izanda. Era berean, tresna horiek abiarazteko kontuan hartu beharreko alderdiak ezarriko dituzte eta, kasu batzuk aurkeztu ondoren, horietako bat abiaraziko dute.<br>Azkenik, amaitzeko, talde handian bateratze-lana egingo da. Prestatutako materiala irakasleari emango zaio. | Ikasleak jabetu daitezen topatuko duten errealitatera egokituko diren ebaluazio-tresnak sortzeko beharraz eta bidean aurkitu ahal izango dituzten zailtasunak ezagutu ditzaten. | Lan pertsonalerako materiala. Kasuak. |
| J3 Bideoforuma, familiekin lan egitearen garrantziari buruzkoa. | Guztiak | 2 h | X | X | Familiekiko lankidetzarekin zerikusia izango duen dokumentala ikusiko da. | Ikasleek gaiaren aurrean jarrera kritikoa har dezaten, eta adingabearekin eta haren familiarekin batera lan egitearen garrantzia balora dezaten. | Dokumentala.<br>Erreproduzigailua.<br>DVDa.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J4-E3 Azken ebaluazioa: idatzizko proba bat ebaztea. | Guztiak | 1 h | | X | Ikasleek azken bi unitateetan landutako gaiei buruzko galdera sorta bat erantzungo dute banaka. | Gelan landutako azken ikasgaiarekin lotutako konpetentzia | Idatzizko proba. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | teknikoak bereganatu direla egiaztatzeko. | |

**OHARRAK**

- Jardueren iraupena taldearen eta beraren ezaugarrien arabera erabakiko da. Era berean, materiala aldatzeko aukera ematen da, betiere helburuak lortzeko beharrezkoak diren eduki guztiak lantzen badira.
- Ebaluazio-jarduerek (J-E gisa adierazten dira) moduluaren azken balorazioa egiten lagunduko dute.

| 7. unitate didaktikoa: GIZARTE ETA HEZKUNTZA ARLOKO ESKU HARTZEARI BURUZKO LABURPEN PROIEKTUA | Iraupena: 25 ordu |
|---|---|

*IE1: Adingabeen zentroetan hartutako haurrei zuzenduta, gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko programak eta jarduerak planifikatzen ditu. Horretarako, haurrei arreta eskaintzeko erakundearen eredua eta indarrean dagoen araudia aztertzen ditu.*
*IE2: Familiekin esku hartzeko programak eta jarduerak planifikatzen ditu, eta esku-hartzearen eginkizuna haurraren hezkuntza eta garapen osoan justifikatzen du.*
*IE3: Arrisku-egoeran dauden edo adingabeentzako zentroetan hartuta dauden haurrei zuzendutako gizarte- eta hezkuntza-jarduerak abiarazten ditu, eta horiek esku-hartzearen helburuekin eta estrategia metodologikoekin lotzen ditu.*
*IE4: Haurren gizarte- eta hezkuntza-prozesuan familien lankidetza errazten duten jarduerak eta estrategiak abiarazten ditu, eta horiek haien ezaugarriekin eta beharrekin, eta esku-hartzearen helburuekin lotzen ditu.*
*IE5: Adingabeen zentroetan hartutako haurrekiko gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzeen prozesua eta emaitza ebaluatzen du, eta ebaluazioa aldagai garrantzitsuekin eta erakundean ezarritako protokoloekin lotu du.*
*IE6: Familiekiko esku-hartzeen prozesua eta emaitza ebaluatzen du, prozesuan garrantzitsuak diren aldagaiak identifikatzen ditu eta horien hautaketa justifikatzen du.*

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Adingabeekiko eta familiekiko gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzeari buruz indarrean dagoen legeria aztertzea.
2. Errealitateari eta beharrei buruzko azterketa egitea.
3. Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzearen hartzaileek dituzten ezaugarrien araberako helburuak finkatzea.
4. Esku hartzeko jarduera eta estrategia egokiak proposatzea.
5. Programa abian jartzeko beharrezko baliabideak abian jartzea.
6. Prozesuan inplikatutako beste profesional batzuekin koordinatzeko eta informazioa trukatzeko bideak eta mekanismoak ezartzea.
7. Esku-hartzearen arrakastan talde-lanak duen garrantzia baloratzea.
8. Prebentzio- eta segurtasun-neurriak hartzea.
9. Programa ebaluatzeko irizpideak ezartzea.

| EDUKIAK | | Multzoak | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| PROZEDURAZKOAK | • Aurreko unitate didaktikoetan garatutako guztiak. | | | | | | |
| KONTZEPTUZKOAK | • Aurreko unitate didaktikoetan garatutako guztiak. | | | | | | |

| | |
|---|---|
| JARRERAZKOAK | • Aurreko unitate didaktikoetan garatutako guztiak. |

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota | Helburu inplikat. | D. | NORK Ir. | NORK Ik. | NOLA egingo den | ZERTARAKO egingo den | ZEREKIN egingo den |
| J0 Unitate didaktikoaren aurkezpena.<br>E0. Hasierako ebaluazioa. | | 1 h | X | X | Irakasleak ahozko galderak egingo dizkie ikasle guztiei; ideia-zaparrada antolatuko du unitatearen aurkezpen laburra egin aurretik; eta inkesta bat egingo du unitatea amaitzean. | Ikasleak motibatzea eta ikasleengan interesa piztea bilatzen da, dituzten itxaropenak ezagutzeko eta aurretiazko ezagupenak antzemateko.<br>Ikasleei jakitera emateko unitate didaktiko honen edukia zein den eta ikaskuntza berriak gainerako unitate didaktikoetan jasotakoekin nola lotzen diren; horrela, ikasleek moduluaren ikuspegi orokorra bereganatzeko eta ikaskuntza esanguratsuak egiteko. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria.<br>Aldez aurretik egindako inkesta. |
| J1 Azalpena, gizarte- eta hezkuntza-arloko proiektuen plangintzak dituen elementuei, eta hura prestatzeko kontuan hartu beharreko antolamendu- eta lege-alderdiei buruzkoa. | | 3 h | X | | Irakasleak talde osoari klase magistrala emango dio, familiekin esku hartzeko eta arrisku sozialean dauden adingabeei arreta eskaintzeko gizarte- eta hezkuntza-arloko proiektuak dituen elementuen inguruan. | Ikasleek ezagutu ditzaten familiekin esku hartzeko eta arrisku sozialean dauden adingabeei arreta eskaintzeko gizarte- eta hezkuntza-arloko proiektuak dituen elementuekin lotutako alderdiak. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia.<br>Ordenagailu eramangarria. |
| J2-E1 Elkarlana: familiekin esku hartzeko eta arrisku sozialean dauden adingabeei arreta eskaintzeko gizarte- eta hezkuntza-arloko proiektu bat prestatzea. | | 15 h | | X | Ikasleek, taldetan banatuta, gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko proiektu bat egin beharko dute. Horretarako, eman beharreko urratsei buruzko gidoi bat eta proiektua egiteko lagungarria izan dezaketen bibliografia izango dituzte. Hona eman beharreko urratsak:<br>1. Diagnostikoa:<br>• Kolektiboaren egoera aztertzea: deskribapena | Familiekin esku hartzeko eta arrisku sozialean dauden adingabeei arreta eskaintzeko gizarte- eta hezkuntza-arloko proiektu bat gara dezaten, eta hura gauzatzeko eta arrakasta izateko kontuan hartu beharreko | Zenbait informazio-iturri:<br>∞ Testuliburuak.<br>∞ Internet.<br>∞ Bisitak. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | egitea eta beharrak antzematea.<br>• Ingurune aztertzea: eskura dauden baliabideak.<br>• Lehia-posizioa aztertzea.<br>• Antzeko esku-hartze proiektuei buruzko azterketa bibliografikoa.<br><br>2. Diseinua/plangintza:<br>• Proiektuaren izendapena.<br>• Proiektu mota:<br>o Deskribapena.<br>o Justifikazioa/oinarritzea.<br>o Helburu orokorrak eta berariazkoak.<br>o Onuradunak.<br>o Kokapen fisikoa eta hedadura espaziala.<br>• Metodologia: gauzatu beharreko jarduerak eta eginkizunak.<br>• Kronograma: jardueren eta eginkizunen egutegia/denboralizazioa finkatzea.<br>• Baliabideak: pertsonalak, materialak eta finantzarioak.<br>• Aurrekontua.<br>• Adierazleak eta ebaluazio-metodologia.<br><br>3. Aplikazioa/gauzatzea.<br><br>4. Ebaluazioa. | alderdi guztiak ezagutu ditzaten. | |
| J3 Adingabeentzako zentro bat bisitatzea. | | 2 h | X | X | Ikasleek aukera izango dute instalazioak ezagutzeko, funtzionamenduari buruzko hitzaldi bat entzuteko eta euren proiektua gauzatu ahal izateko erabilgarritzat jotzen dituzten galdera guztiak egiteko. | Motibazioa lantzeko, ikasleak eginkizunean kokatzeko eta lanari ekin ahal izateko erreferentzia bat izateko. | Papera.<br>Bolaluma. |
| J4-E2 Proiektua defendatzea. | | 3 h | | X | Ikasleek gainerako taldekideen aurrean azalpen bat egingo du. Azalpen horretan, gizarte- eta hezkuntza-arloan esku | Gainerako taldekideei sortutako proiektuaren edukia jakinarazteko | Power Point-eko aurkezpena.<br>Kanoia. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | hartzeko sortutako proiektuaren atal garrantzitsuenak jasoko dira. | eta hura defendatzean jarrera positiboa hartzeko. | Ordenagailu eramangarria. |
| E3 Azken ebaluazioa: idatzizko proba bat ebaztea. | | 1 h | | X | Ikasleek landutako gaiaren inguruko kontzepturik garrantzitsuenei buruzko galdera sorta bat erantzungo dute banaka. | Unitate didaktikoan bereganatutako ezagupenak erakusteko balioko du. | Idatzizko proba. |

**OHARRAK**

- Ikaskuntza-jarduera gehienak ikasgelan bertan egiteko modua bilatu da; hala ere, denboralizazioan aurreikusitakoa baino denbora gehiago beharko dute ikasleek zenbait jarduera amaitu ahal izateko.
- Ikaskuntza-jardueretan eta ebaluazioa egitean landu dituen materialak emango dizkio ikasleak irakasleari, berak zuzentzeko eta baloratzeko. Ikasleek lan egiten duten bitartean, irakasleak ikasleen jokaera behatuko du, eta datuak jaso eta erregistratuko ditu, ondorengo ebaluazioa erabilgarriak izango dituen adierazleen arabera.

